

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: **2008/18/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko martxoaren 11koa, balore higigarrietan inbertitzen dituzten inbertsio kolektiboko erakunde batzuen gaineko legezko, arauzko eta administrazioeko xedapenak koordinatzen dituen Kontseiluaren 85/611/EEE zuzentaraua aldatzen duena, Batzordeari esleitutako betearazpen-eskumenei dagokienez.**

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*DIRECTIVA 2008/18/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 11 de marzo de 2008, que modifica la Directiva 85/611/CEE del Consejo, por la que se coordinan las disposiciones legales, reglamentarias y administrativas sobre determinados organismos de inversión colectiva en valores mobiliarios (OICVM), en lo relativo al ejercicio de las competencias de ejecución atribuidas a la Comisión*» (*Diario Oficial de la Unión Europea, L 76 de 19/03/2008*)

**2008/18/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA
KONTSEILUARENA,**

2008ko martxoaren 11koa,

**balore higigarrietan inbertitzen dituzten inbertsio kolektiboko erakunde batzuen gaineko
legezko, arauzko eta administraziozko xedapenak koordinatzen dituen Kontseiluaren
85/611/EEE zuzentaraua aldatzen duena, Batzordeari esleitutako betearazpen-eskumenei
dagokienez**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR
BATASUNEKO KONTSEILUAK,

prozedurak ezartzen ditu Erabaki horrek.

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatu eta, bereziki,
haren 47. artikuluan 2. paragrafoa aztertu dute,

- (2) 1999/468/EE Erabakia 2006/512/EE Erabakiak aldatu zuen. Azken horren bidez, Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera onetsitako oinarritzko egintzen elementu ez-funtsezkoak aldatzeko, edo elementu horiek ezabatzeko edo elementu ez-funtsezko berriekin osatzeko kontrolpeko arautze-prozedura finkatu zen, irismen orokorreko neurriak onartuz gauzatzekoa.

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen Irizpena²
aztertu dute,

- (3) Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak 2006/512/EE Erabakiaren gainean kaleratutako Adierazpenari⁶ jarraiki, kontrolpeko arautze-prozedura Tratatuaren 251. artikuluko prozeduraren arabera onartutako indarreko egintzei aplikatu ahal izateko, egintzok egokitu egin behar dira, prozedura aplikagarrien bidez.

Tratatuaren³ 251. artikuluan ezarritako prozedurari
jarraiki,

Honako hauek hartu dira kontuan:

- (1) Kontseiluaren 85/611/EEE Zuzentarauaren⁴
arabera, zenbait neurri Kontseiluaren 1999ko
ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakiari⁵
jarraiki onartu behar dira. Batzordeari
esleituriko egikaritze-eskumenak baliatzeko

- (4) Batzordeari eskumenak ematea komeni da, 85/611/EEE Zuzentaraua aplikatzeko beharrezko neurriak har ditzan. Horretarako, zehaztapenak argituko dituzten aldaketa teknikoak onartu beharko ditu, Zuzentaraua erkidego osoan uniformetasunez aplikatzen dela bermatzeko. Halaber, bai terminologia bai definizio nagusiak balore higigarrietan inbertitzen duten inbertsio kolektiboko erakundeetako buruzko egintzen eta horiei lotutako beste kontuen arabera egokitu beharko dira. Irispide orokorreko neurriak direnez eta 85/611/EE Zuzentaruaren funtsezkoak ez diren elementuak aldatzea dutenez xede, Zuzentaruaren 5 bis artikuluan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren

² C 161 EO, 2007-07-13, 45. or.

³ Europako Parlamentuaren Irizpena, 2007ko uztailearen 10ekoa —oraindik ez da Egunkari Ofizialean argitaratu— eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko martxoaren 3koa.

⁴ L 375 EO, 1985-12-31koa, 3. or. Zuzentaru hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005/01/EE Zuzentaruak —L 79 EO, 2005-03-24koa, 9. or.— aldatu zuen azkenekoz.

⁵ L 184 EO, 1999-07-17koa, 23. or. Erabaki hori 2006/512/EE Erabakiak —L 200 EO, 2006-07-22koa, 11. or.— aldatu zuen.

⁶ C 255 EO, 2006-10-21, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

arabera onartu behar dira.

- (5) Hortaz, bidezkoa da 85/611/EEE Zuzentaraua aldatzea.
- (6) Zuzentarau honen bidez 85/611/EE Zuzentaraan egin diren aldaketak moldaketa teknikoak direnez eta komitologiari bakarrik eragiten diotenez, ez dago zertan estatu kideek bereganatu. Horrela, bada, ez dago ondorio horietarako xedapenik ezarri beharrik.

HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Aldaketak

85/611/EEE Zuzentaruaren 53 *bis* eta 53 *ter* artikuluetan, testu hau jarri da:

«53 *bis* artikulua

Batzordeak alor hauetan egingo dizkio Zuzentaruari aldaketa teknikoak:

- a) Zuzentaruaren erkidego osoan uniformetasunez aplikatzen dela bermatzeko, definizioak argituko ditu.
- b) bai terminologia bai definizio nagusiak balore higigarrietan inbertitzen duten inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko egintzen eta horiei lotutako beste kontuen arabera egokituko ditu.

Neurri horiek, Zuzentaru honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzea dutenak xede, 53 *ter* artikulua 2. paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera onartuko dira.

53 *ter* artikulua

1. Batzordeari bere 2001/528/EE Erabakiaren* bidez eratu zen Europako baloreen komiteak lagunduko dio.

2. Honako paragrafo hau aipatzen duten

* L 191 EO, 2001-07-13, 45. or. Erabaki hori 2004/8/EE Erabakiak —L 3 EO, 2004-01-07koa, 33. or.— aldatu zuen azkenekoz».

kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 5 *bis* artikuluko 1. paragrafotik 4.era bitartekoak eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, eta 8. artikuluan xedaturikoa ere errespetatuko da.

2. artikulua

Indarrean sartzea

Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean zuzentaru hau.

3. artikulua

Hartzaileak

Zuzentaru honen hartzaileak estatu kideak dira.

Estrasburgon emana, 2008ko martxoaren 11n.

Europako Parlamentuaren izenean
Presidentea

Kontseiluaren izenean
Presidentea
J. LENARČIČ